

3 CANVAS FUNTSEZKO ELKARTEAK.

Itunak egiterako orduan, gure negozio-eredua arropa ekoizten duten enpresa txikiekin optimizatuko genuke. Gure zerbitzuan egongo diren jantzi batzuk enpresa txikietatik erosiko dira, hauen produkzioa areagotzeko eta beraiek eta guk arrakasta lortu dezagun.

Gure produktuaren arrisku larrienetako bat bezerorik ez izatea da, hau da, jendeak gure produktua kontsumitu nahi ez izatea. Gure produktua aurrera eraman ahal izateko hainbat bezeroren konfiantza behar dugu, horrela erosle gehiago erakartzeko.

Gure funtsezko baliabideak bakoitzak jarri dezakeen diru kopurua, lokal bat, jantziak eta haurren jostailuak donatuko dizkiguten bezeroak dira. Lehenago aipatu bezala, aurrera eraman dugun inkesta baten laguntzaz (2.canvas), donatzaile batzuk zihurtatu ditugu.

Aliantzak egiterako orduan guretzako lehiakide ez diren eta interesgarri izan daitezken enpresa-motak, marka ezberdinetako arropa enpresak dira. Gure kasuan “Joint Venture” bat egitea interesgarria iruditzen zaigu, gure enpresa errazago hazteko aukera ederra eskainiko baitugu eta salmenta eta errenta mundu honetan berriak garenez ondo etorriko litzaigukelako enpresa baten laguntza. Gure kasuan, Bask euskal arropa ekoizle enpresarekin egingo dugu “Joint Venture”-a.

